

EUSKAL - NESKAK ETA EUSKERA



OST, sei, zazpi neska liraiñ, pozaren-pozez, saltoka-saltoka, langille nekatuari pasatzeko zirriztu bat ere utzi eziñik... orra zer ikusten detan.

—¿Qué te crees,

Garbi, que les voy a hacer caso? —dio ixkiñako batek.

—Yo, por lo menos, hasta las 12'30 no me acuesto.

Bertan dira, ezagutzen ditut. Agerre-ko Edurne, Jospñixin alaba; Etxeberri-ko Garbiñe... Baserriko neskek erderaz itz egiten... gabeko amarretan zainera... Arantzazu-ko Ama Birjiña!!!

Euskaltzale bat, au ikusita, lasai oeratu-ko al-da, kezkarik gabe bizi...? Ez Jainkoarren!!

Mintzatuko ba-lirake izkuntza berri bat ikasteko, ondo; baña lotsa dute, bai, egitan diotsut, lotsa. Amak txiki-txikitandikan, esnearekin batean barruraño sartutako izkuntz ederrak lotsarazten ditu.

Zure ama ikusteak lotsa ematen al dizu? Ta... euskerak, zure bigarren amak, ainbeste neke ta lan jasan ditun izkuntza gaxoak, lotsa ematen dizu. Etzaitu ikusten aitonak!!!

Jakintsuak, ikusirik an euskeraren aberastasuna, or ari dira, lan da lan ikasten eta euskal kutsuak batzen... eta gure baserrietako, Euskalerriko neskek, erdel-itzi-jario parragarrian dabilzkigu.

Euskerak lotsatu, euskerak arpegia gorritu, lepoa makurtu... Tun-tunak, alenak

alakoak!!! Erderak beste malla batean ipintzen dituztelakoan dabiltz, ikusten dan bezela, zoroen eran.

Irakurle, neska baldin ba-zera, irten kalera, zoaz lagun artera, ta mintzatu zaitez euskeraz; euskeraz kalean, euskeraz pamilin. Ez uste izan, arren, euskerak ao zakarretan izan bear duanik. Zu ta nik baño gizon aundiagoak, ospetsuagoak euskeraz mintzaten dira, batere lotsatu gabe.

Euskeraz mintzatzeko lotsa, nun-dik nora? Ez orrelakorik, euskal neska gazte; euskera ederra da, mamitsua, goxoa.

Jaunak eman zigun; izan bedi, bada, gurea.

Ondo jokatu zaitez te egunen batean, Jaunaren graziarekin, entzungo dezu zufe semetxoen aotik, magalean kixkur-kixkur egiñik daukezun une gozo aietan, itz ezitstu auek: ama..., aita!!

Bilbon, Gazteiz (Bitori), Iruñin eta Donostin, beintzak neska saill ederra ari da lanean. Nola? Alkarren artean euskeraz itz egin da, euskal liburuak irakurriz. Zenbat alaitzen geran euskaltzale guztiok gauz aek entzunez.

Euskal liburuak irakurriaz, esan dizut; irakurri bai, euskera ondo jakin nai ba-dezu; ba-dituzu liburuak-eta. Galestiak dirala-eta, ez orregatik irakurri gabe gelditu; saltzen ez diralako bai-dira galestiak.

Orrela egiten ba-dezu, izango zera benetako euskal neska, garo usai goxoa ixuriko dezu zure aldamenean; izango zera aurreko euskal neskaen irudi apaña.

«ILLUNBE»

Sarasola'tar Jose Manuel

ARÓBI AUNDIETAKO ARBEL LANTEGIAK

Gaur egunean izan litezke lankai edo makinariak berri ta egokienakin lan bikañak egiten dira Arbel (pizarra) onenariako; trinko ta garbia Paris'ko Ekola edo Laboratorietako zuzendariak beren azterketa agirietan dioten bezela. Edozein lanetarakoak ludiko eñi guzietarako.

ISASONDO (Gipuzkoa) — Urutizkiña) 88061

Zuzenbidea urutidazkiz: SARASOLA

Villafranca de Oria